

8) FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure enpresaren negozio-ereduak funtziona dezan, hainbat jarduera garrantzitsu egin behar ditugu. Jarduera horiek funtsezkoak dira zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko, bezeroekin epe luzerako harremanak sendotzeko eta diru-sarrerak etengabe mantentzeko.

Hauek dira gure funtsezko jarduerak:

- 1) Ekoizpena: gure negozioaren kasuan ekoizpena ez da produktu fisiko bat sortzea, baizik eta atzerrian hizkuntza bat ikasteko esperientzia eskaintzea. Gure eginbeharra ez da soilik ikastaro bat eskaintzea, bezeroaren behar guztiei erantzuten dien esperientzia osoa diseinatzea baizik. Bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzuan, besteak beste ondorengo puntu hauek nabarmentzen dira:
 - Programaren diseinua: jarduera sozialak eta kultur eskaintzak bezeroaren profilerara egokitzea.
 - Helmuga eta harrera familien aukeraketa: herrialde egokiena eta bertako harrera eta familia fidagarriak eta esperientzia aberasgarria eskaini dezaketenak bilatu.
 - Logistikaren antolaketa: hegaldien antolaketa, garraioak, egonaldiak eta eguneroko mugikortasuna modu koordinatuan planifikatzea.
 - Ikasleen eta langileen arteko koordinazioa: ikasle bakoitzaren aurrerapena monitorizatzea eta programaren amaieran balorazio pertsonala ematea, ikaskuntza-prozesua ahalik eta eraginkorra izan dadin.

Helburua bezeroentzat esperientzia segurua, eroso eta kalitatezkoa bermatzea da.

- 2) Arazoen konponketa: gure bezeroekiko konfiantza eta leialtasuna sortzeko ezinbestekoa da, arazo baten aurrean laguntza azkarra eta eraginkorra eskaintzeko. Horretarako bi kanal hauek ditugu:
 - Arreta telefonikoa (695 119 597)
 - Posta helbidea (I&Lelkartruke@hotmail.com)
- 3) Plataforma edo sareko jarduerak dira: Komunikazioa eta zerbitzu-eskaintza kanal digitalen eta aurrez aurreko baliabideen bidez egiten ditugu:
 - Web orria (informazioa eta izen emateak eskaintzeko)
 - Telefonoa (kontsultak berehala erantzuteko)
 - Lokala (arreta pertsonalizatua emateko)
 - Sare sozialak (esperientziak, berriak eta promozioak partekatzeko)

Jarduera hauek guztiak funtsezkoak dira zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eta bezeroen eta gure arteko komunikazioa errazteko.